



Ostirala, 2010ko apirilak 23 - 15:42 Plaza

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)



[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2007-01-18

Tamainan eta limoi zaporearekin

Atzo zabaldu zuen Astigarragan Juan Martinez Irujo pilotariak aurtengo sagardo sasoia

AINARA ARRATIBEL

Astigarraga

«Sagardotegiko giroarekin askoz gehiago disfrutatzen da sagardoaz»

Orekatua eta fruitutsua. Halakoxea da aurtengo sagardo berria. Sagar uztza ez da uste bezain handia izan, baina ez txikia ere. Denera 12 milioi litro sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian. Juan Martinez Irujo pilotariak eman zion atzo hasiera denboraldiari

Astigarragako (Gipuzkoa) Bereziartua sagardotegian. Sagardoak primerakoa zegoela esan zuen: «Niri, behintzat, asko gustatu zait».

Azken urteotan gertatu den bezala, lehorreak baldintzatu du sagar uztza. «Lehenago bildu behar izan ditugu sagarrak, eta horrek eragina izan du fruituaren tamainan. Justu samarra izan da», azaldu zuen Jose Angel Goñik, Sagardun-eko buruak. Halaber, espero baino sagar gutxiago jaso dute. «Dena den, uztza nahiko txukuna izan da». Gainera, eguraldi beroari esker, sagardoak azkarrago irakin du, eta tamainan dago denboraldi hasierarako.

Guztira 16 milioi kilo sagar erabili dira aurtengo sagardoak egiteko. Horietatik sei milioi eta erdi hemengo sagastietan jaso dituzte: %40 inguru. Iaz %20 baino ez ziren izan hemengoak.

Baina nolakoa da sagar horiek eman duten sagardoak? Horixe izaten da sagardozaileek jakin nahi izaten dutena: «Orekatua eta fruitutsua dela esan daiteke. Limoi lurria du». Horrek are freskagarriagoa egiten du sagardoak.

Etorkezunari begira, sagardoaren maila hobetzen jarraitzeko asmoa erakutsi zuten bai sagardogileek eta baita Astigarragako, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintariek. Haien esanetan, gastronomia eta turismo ikuspegitik, ikur bat da sagardoak.

PROBATZEKO GARAIA. Aurtengo sagardoak nolakoa den jakin eta gero, dastatzea baino ez zen falta denboraldia hasteko. Juan Martinez Irujo pilotariak izan zuen ohore hori. Jende mordoak bildu zen Bereziartua sagardotegian hura ikustera. Ekitaldia ohikoa izan zen. Upelen gelako ateak ireki, eta txalapartariak hartu zituzten Irujo eta Udaleko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintariak. Dantzariak aurrekua dantzatu, eta upeleko ziria atera zuen Martinez Irujori. Tragoa edan, eta urteroko esaldia esan zuen: «Aurtengo sagardo berria!». Baina egarri zegoelako edo, bigarren aldiz edan zuen: «Ez naiz oso aditua, baina primerakoa dagoela esango nuke».

Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluzeren bertsoak entzun eta gero, han bildutakoek ilara luzea osatu zuten sagardoak probatzeko. Eztarria busti ostean, sabela gozatzeko ordua iritsi zen. Berrehun bat lagunek bazkari legea egin zuten Bereziartuan bertan. Menua, noski, sagardotegikoa: bakailaoa piperrekin, bakailao tortilla, txuleta, gazta eta intxaurrek. Atzoz geroztik denok dugu horretaz gozatzeko aukera, zabalik baitago sagardo sasoia.

JUAN MARTINEZ IRUJO - PILOTARIA

«Sagardotegiko giroarekin askoz gehiago disfrutatzen da sagardoaz»

A.A

Iaz hiru txapelketa nagusiak irabazi zituen Juan Martinez Irujok (Ibero, 1981): buruz burukoa, binakakoa eta lau t'erdikoa. Hiru txapelak sagardotegian ospatu zituen. Horrenbestez, oso leku bereziak dira beretzat. Sagardoak oso gustuko du, eta baita sagardotegiko menua ere: «Jatun ona naiz». Sagardogileen gonbidapena eskertu, eta halako ekitaldi batean parte hartzea ohorea zela nabarmendu zuen.

Noiz jaso zenuen denboraldia zabaltzeko proposamena?

Duela aste batzuk jaso nuen, eta eskerrak eman behar dizkiet Astigarragako sagardogileei gonbidapena egiteagatik. Niretzat ohore handia da Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua den egun batean parte hartzea.

Gustuko al duzu sagardoak?

Izugarri. Gainera, sagardotegietan izaten den giroarekin askoz gehiago disfrutatzen da sagardoaz

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Aralarrek dio Batzarre 2011ko hauteskundeetan NaBaitik kanpo egon daitekeela
- 2 Natalia Lavrova olimpiar txapelduna hil da, auto istripuan
- 3 "Loiolakoak izango dira biharko eguneko akordioaren osagaiak"
- 4 Nazi taldeen militante ohi batek hitzaldia emango du Donostian astelehenean
- 5 Azoka eta ekitaldi ugari gaur, Liburuaren Egunean

Eta menua?

Bai. Jatun ona naiz, eta gustatzen zait.

Pilotari guztiek sagardotegian ospatzen dituzue txapelak. Zergatik?

Dagoen giroagatik, eta sagardotegietan beste edozein jatetxeetan baino jende gehiago sartzen delako.

Martxoan binakako txapelketako finala jokatu da. Hartu al duzu lekua sagardotegian?

Oraindik ez (kar, kar, kar). Txapelketa hasi besterik ez da egin, baina espero dezagun dena ondo joatea eta finalera iristea.

Olaizola anaiek sagardotegia dute. Zuri gustatuko al litzaizuke bat zabaltzea?

Bai, baina ez dut uste egingo dudarik. Iberon ez baitago sagardotegirako ohitura handirik.

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#) |  |  |

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa